

PSOE, Unidas Podemos eta Euskal Herria

Bilduren arteko akordio politikoa

Alarma Egoera luzatzeko

Euskal Herria Bilduk, PSOEek eta Unidas Podemosek akordio politiko hau sinatu dute Estatuko herrien eta langileen babes sozial eta ekonomikoa bermatzeko ezinbesteko neurriak hartzeko helburuarekin. Neurri hauek Euskal Herriko gehiengo sozialaren eta euskal langileriaren bizi baldintzak hobetzea dute jomuga, baita Espainiako Estatuko langileenak ere.

Alarma Egoeraren luzapena ez oztopatzeko Euskal Herria Bilduren konpromisoa dakar akordio honek, adostutako hitzarmena garaiz eta edukia errespetatuta betetzeko PSOEren eta Unidas Podemosen konpromisoarekin batera.

Akordioaren edukia

1. PPK 2012an martxan jarritako Lan Erreforma osotasunean indargabetzeko konpromisoa hartzen dute akordio hau izenpetu duten indar politikoek. Covid-19ari lotutako krisiaren harira hartu beharreko ezohiko neurri ekonomiko eta laboralen ezarpena amaitu aurretik gauzatu beharko du indargabetzea Espainiako Gobernuak, 2012ko Lan Erreforma bertan behera utzita.
2. Tokian tokiko erakunde foralek eta autonomikoen Covid-19aren krisiak eragindako ondorio sozialei aurre egiteko, gastu gaitasun eta malgutasun handiagoa izango dute herritarren mesederako politika publikoak martxan jartzeko. Udalek, gainera, politika sozialetara bideratzen duten dirua gastu arauaren zenbaketatik at geratuko da, ez baita kontuan hartuko. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren zorpetze gaitasuna beren erakundeen finantza egoeraren arabera ezarriko da soilik.
3. Akordio hau sinatu duten indar politikoek adostutako neurrien aurrerapen, garapen eta ezarpenaren berri emango diote Euskal Herria Bildu Talde Parlamentarioari.

Madril, 2020ko maiatzaren 20a